

DIRU-SARRERA ITURRIAK ETA PREZIOAK

Algetatik sortutako bioerregaien egitasmoa energia berriztagarriaren sektorean diharduten enpresei, industria txiki eta ertainei, garraio-enpresei eta administrazio publikoei bideratuta dago. Gure helburua da bioerregai jasangarria prezio lehiakorretan eskaintzea, edozein enpresak eskuratu ahal izan dezan, hasierako inbertsio handirik egin gabe. Horregatik, gure proiektua zerbitzu publiko eta pribatuaren arteko nahasketa izango da.



Zerbitzu publikoa, batez ere, udalak, mankomunitateak eta energia berriztagarrien plan publikoak garatzen dituzten erakundeetara bideratuko da. Zerbitzu hau Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Estatuaren diru-laguntzek lagunduta eskainiko da, prezio merkeagoekin. Zerbitzu pribatua, berriz, bioerregaiak ekoizten, banatzen edo erabiltzen dituzten enpresei zuzenduta egongo da.

1. Aktiboen salmenta (bioerregaia eta biomasa)

Algaz sortutako bioerregaia eta biomasa energia-enpresei, logistika-enpresei, nekazaritza-kooperatibei eta industria txikiei salduko zaie.

- Bioerregaia (litroa): **0,90 € – 1,20 €**
- Biomasa lehortua (tona): **120 € – 180 €**
- Bolumen handiko erosketetan: %10-15eko deskontua

2. Lizentziak (ekoizpen-teknologia)

Gure algak hazteko eta bioerregaia ekoizteko teknologia beste enpresek erabiltzeko aukera izango dute.

- Lizentzia urtekoa (enpresa txikiak): **3.000 € / urte**
- Lizentzia urtekoa (enpresa ertainak): **6.000 € / urte**
- Hasierako aholkularitza barne

3. Harpidetzak (energia berdea)

Enpresei hileko ordainketa finko baten bidez algaz sortutako energia berdea eskainiko diegu.

- Enpresa txikiak: **120 € / hilabete**

- Enpresa ertainak: **300 € / hilabete**
- Administrazio publikoak (subentzionatua): **150 € – 200 € / hilabete**

Sistema honek kostuen egonkortasuna eskaintzen die bezeroei.

4. Alokairua

Algak hazteko edo energia sortzeko ekipoa lokairuan eskainiko dira.

- Fotobioreaktorea txikia: **200 € / hilabete**
- Sistema osoa (hazkuntza + energia): **450 € / hilabete**
- Mantentzea barne

5. Aholkularitza eta komisioak

Beste enpresei algazko bioerregaia ezartzen laguntzeko zerbitzuak eskainiko ditugu.

- Hasierako azterketa teknikoa: **500 €**
- Instalazio-aholkularitza osoa: **1.500 € – 3.000 €**
- Proiektu handietan: %5-8ko komisioa

6. Publizitatea eta babesletzak

Ingurumenarekin lotutako markekin lankidetzak akordioak egingo ditugu.

- Babesletza txikia: **1.000 € / urte**
- Babesletza nagusia: **3.000 € – 5.000 € / urte**
- Logotipoa webgunean eta instalazioetan agertzea barne

Amaitzeko, gure egitasmoaren helburua da algaz sortutako bioerregaia enpresa guztientzat irigarria izatea, bereziki bioerregaien, energiaren eta ingurumenaren sektoreko enpresentzat, eta aldi berean jasagarritasuna eta errentagarritasuna uztartzea.